

Ikasleen Txokoa

Urumea Ikastola



Izokinaren

arrantza Urumea ibaian / II

ALEX UGALDE ETA AITOR UGARTE



ELKARRIZKETA

MAIDER MARTIN ALONSO - Tennis jokalaria / III

AMAIA MANRIQUE ETA JOSU GONZÁLEZ

IV / Bizkaiara irteera azaroan

MAIALEN ETA NAHIKARI

IV / Atsegindegiren itxuraldaketa

Egileen argazkia / IV



Ikasleen Txokoa kaleratzen da Hernaniko ikastola eta ikastetxeek Hernaniko Udalarekin eta Hernaniko Kronikarekin egindako elkarlanari esker. Datozen hilabeteetan jarraipena izango du.

URUMEA IKASTOLA

Izokinaren arrantza Urumea ibaian

Urumea ibaian gero eta izokin gutxiago zegoela eta, izokin kumeak bota dituzte azken urteetan. Hala ere, ibaian gora egiten duten piezen kopurua asko jaitsi da azken urteetan.

URUMEA ibaian gero eta izokin gutxiago daude. Izokin kumeak askatzea erabaki zuten Txanxangorri Elkarteko kideek izokin gehiago izan zedin. Orduan hazitegitik izokin mordo bat hartu eta ibaian zehar askatu zituzten, hala ere ez da asko ugartu. Urtero zenbatu egiten dituzte zenbat izokin igarotzen diren Urumea ibaitik eta azken urteetako emaitzak hauexek dira:

- 2008an 22 izokin igaro ziren.
- 2007an 60 izokin.
- 2006an 56 izokin.
- 2005an 160 izokin.

Ikus dezakezuen bezala urte-tik urtera izokin gutxiago igarotzen da Urumea ibaitik, gero eta gutxiago dagoenaren seinale.

Nola zenbatu izokinak

Izokinen kopurua jakiteko sistema berezi bat erabiltzen da: azaroa eta urtarrila artean kontatzen dituzte izokinak, garai horretan itsasotik ibaira igotzen baitira.

Elorrabiko presan "konpuerta" bat dago. Konpuertak bi ate ditu: bat beheko aldean eta bestea goiko aldean. Izokinak behetik gora igotzen dira, beraz, beheko atea irekita uzten dute izokina sar dadin. Behin barnean dagoelarik ez irteteko, goiko atea itxita uzten dute.

Basozaina konpuerta ikustera



Alex Ugalde erreportajearen egileetako bat arrantzale amorratua da.

joaten da noizik eta behin, izokin sartu den ikustera. Izokinen

bat baldin badago barruan, bi atea itxi egiten dituzte. Gero barrua hustu, basozaina bertan sartu eta xalabardoarekin izokina ateratzen du. Kanpoan, izokina nola dagoen ikusten du (gaizki badago sendatu egiten du), pisatu, neurtu eta ibaira askatzen du, beti presaren gainera, ibaian gora bere ibilbidea jarrai dezan.

Billabonatik Elorrabira

Karabelen izokin kumeak askatzen dituzte baina gutxi batzuk bizirik irauten dute epe luzean. Izokin kume horiek "txip" batekin askatzen dituzte. Duela hilabete bat gutxi gorabehera, askatutako izokin bat Billabonan, Oria ibaian zebilela ohartu ziren. Handik egun gutxi batzuetara, izokina Elorrabiko presan dagoen konpuertan sartu zen. Oso handia zen. ||



Izokin kumeak Urumean bota aurretik.

Groenlandiatik

Urumea

usaimenari jarraituz

Izokinek ur-lasterretara jotzen dute jaiotzen direnean eta bakterioak jaten dituzte. Baina handitzen doazen heinean leku sakonagoetara joaten dira eta arrain txikiak jaten dituzte.

Etixerako bidea

Behin urte betera edo bira heldzean, itsasora abiatzen dira. Itsasoan bi edo hiru urte igarotzen dituzte. Batzuk Groenlandiaraino ere iristen dira. Behin hara ailegatzean, jaiotako ibaie-tara bueltatzen dira arrautzak jartzera.

Usaimenari jarraituz

Itzuleran ez dute ezertxo ere jaten. Zein ibaie-tara joan behar duten jakiteko usaimenaz baliatzen dira. Abendu eta urtarril partean ugaltzen dira. Bizitzan behin bakarrik ugaltzen dira normalean.

Arrautzak harri azpitan

Arrautzak ur gutxiko lekuetan jartzen dituzte. Emeek isatsekin harriak mugitu eta harrien azpian arraba-lekua egiten dute. Arraba-lekuan emeek arrautzak jartzen dituzte eta arrek beren hazia isurtzen dute arrautzen gainera. Enbriolarba faseak hiru hilabete irauten ditu eta epe hori betetzean izokin kume bilakatzen dira.

Izokin helduak Urumean

2008.....	22 izokin
2007.....	60 izokin
2006.....	56 izokin
2005.....	160 izokin

Maidar Martin Alonso 1994ko irailaren 1ean Hernanin jaioa, 1,70m neurtzen du eta 62kg pisatzen ditu. Tenis jokalaria da eta palmaresa osatzen ari da. Gaur egun Bartzelonan bizi da eta "Akademia Barcelona Total Tensen"-en ari da bere tenis ikasketak egiten. Egun hauetan gurekin dago Hernanin lesio batengatik. Hori dela eta, Urumea Ikastolara egin duen bisita aprobetxatu dugu galdera batzuk egiteko.

BARTZELONAN bizi den arren, azkenaldian herrira etorria da Maidar Martin tenis jokalaria, ebakuntza bat medio. Tenisari eta Bartzelonako bizimoduari buruz galdetu diogu, besteak beste.

Noiz hasi zinen tenisean?

Zazpi edo zortzi urterekin Pio Baroja kiroldegian Donostian, harrezkero Ondarretara joan nintzen Real Club de Tenisera udako ikastaro batzuk egitera.

Zer dela eta zaude orain Hernanin?

Hemen nago Hernanin belauneko lesio bat izan dudalako (Osteokondritis). Martxoaren 13an ebakuntza bat egin zidaten eta hemen jarraitu behar dut osatzeko, hilabete pare bat. Espero dut ekainerako entrenatzen hastea eta hurrengo denboraldiko forman egotea.

Bartzelonara joanda eta gurasoengandik eta lagunengandik urrutzerakoan, zer sentitu zenuen?

Hasieran gogorra egin zitzaidan bai; lagunien falta askotan sumatu nuen, familiarien falta batzutan, herria eta etxea ere faltan botatzen nuen. Baina gero ondo moldatzen hasi nintzen, lagun berriak eginez, konfiantza gehiago hartu nuen hangoekin eta Bartzelona oso erakargarria egin zitzaidan pixkanaka-pixkanaka.

Zein da zure golperik onena tenisean?

Hasiera batean Zeharkako Kolpea hobea neukan Eskubiko Kolpea baino; baina gaur egun Eskubiko Kolpea Zeharkakoa baino hobea dut.

Partiduetan urduri jartzen zara?



Maidar Martin tenis jokalaria Bartzelonan bizi da.

Hasiera batean Zeharkako Kolpea hobea neukan Eskubiko Kolpea baino; baina gaur egun Eskubiko Kolpea zeharkakoa baino hobea dut.

Partidu garrantzitsuetan bai; besteetan gehienetan ez.

Zenbat kopa dituzu etxean?
Gutxi gora behera 70en bat.

Zein da zure jokalaririk gustokoena? ATPan eta WTAn?

Nesketan Ana Ivanovik

serbiarra. Mutiletan, aldiz, Rafael Nadal.

Zer egiten duzu egun arrunt batean Bartzelonan?

Goizeko 8:15ean jeiki, gosalduta eta entrenatzera joaten naiz. 9:15etik 13:30ak arte entrenamenduak egiten ditut (fisikoak edota tenisekoak). Tartean ordu erdi erdiko atsedena hartzen dugu. Ondoren etxera bazkaltzera joan eta 15:30ean eskolara joaten naiz 19:30ak arte (astelehenetan, asteazkenetan eta ostiraletan); asteartean, arratsaldean entrenatzera joan behar dut eta ostegun arratsaldean entrenamenduak eta ikasketak lantzen ditugu batera. Ondoren afaldu eta ohera joaten naiz.

Ba daukazu entrenatzailerik?

Bai, Akademian entrena-tzaile asko daude, baina nesketzat hiru dauzkagu bereziki: Adan, Jose eta Jordi.

LABUR-LABUR

Kolore bat: Gorria

Zenbaki bat: 1a

Liburu bat: Harry Potter

Musika taldea: El canto del loco

Janari gustukoa: Kaneloiak

Animali bat: Izurdea

Auto bat: BMW

Mendia ala Itsasoa: Itsasoa

Ivanovik edo Nadal: Nadal

Zer gustatzen zaizu gehien Bartzelonatik?

Gehiena giroa, eta ondoren entrenamenduak, hemen baino askoz hobekak baitira.

Profesional izatea gutxi bazuten esku dago, gustatuko al litzazuke horra iristea?

Bai, gustatu bai, baina lortzea oso zaila da, gazte askok oso ondo jokatzen dutelako eta profesionaletara iristea oso gutxiren esku dagoen ametsa da.

Non jokatzen duzu hobeto "pista azkarrean" edo "tierra batidan"?

"Tierra batidan" nahiago dut, irristatu egin zaitezkeelako eta "pista azkarrean" ez.

Bueno Maidar zorte ona izan dezazula, aurrena zure lesiotik ondo osatuz eta gero tenis-ibilbidean. Zure ametsak bete daitezela. ||

EGILEAK

Amaia Manrique
eta **Josu González** garren maila

◆ PALMARESA



Maidar
elkarrizketatzaileekin.

Izena: Maidar

Abizenak: Martin Alonso

Jaioterria: Hernani

Urtea: 1994-09-01

Perfila: 1.70m - 62kg

Palmaresa:

-Gipuzkoako txapelduna alebin eta infantil mailetan.

-Euskadiko txapelduna alebin, infantil eta junior mailetan.

-Espainiako txapelketetan: "Manuel Alonso" Txapelketan txapelduna eta Sport Goofy Txapelketan azpitxapelduna.

36

zenbakia

ikasleen txokoa

Bizkaiara irteera azaroan

Urrian Bizkaian barrena ikasleek egindako txangoa.



Aterpetxeak berak oroitzapen onak ekartzen dizkie ikasleei.

DBH 2. mailako ikasleok urriaren 16tik 18ra Gorlizeko aterpetxera joan ginen, ikasurte hasieran. Gorlizera joan baino lehen, eta inguru haieran ginela aprobetxatuz, aurreneko egunean Portugalete inguruak ezagutzeko parada izan genuen, bertan Bizkaiko Zubia edo "Puente Colgante" bertatik bertara ikusteko aukera izan genuen goiko puntaraino igoz, bisita gidatua egin eta bertan ikusten ziren bista ederraz disfrutatu genuen. Arratsalderarte Por-

tugaleten izan ginen eta gero Gorlizera abiatu ginen.

Surfa, piraguismoa, tirolina eta abar

Eguraldi ederra egiten zuenek, eta aterpea hondartzaren parean zegoenez hara joan ginen pixka bat, ondoren monitorea ezagutu eta bertan egin behar genituen ekintzak azaldu zizkiguten. Hurrengo bi egunetan taldeetan banatu eta surfa, piraguismoa, eskalada, tirolina eta gezi jaurtiketa egin genituen

eta oso gustura ibili ginen denok.

Etxera itzultzeko orduan pena pixka bat eman zigun, baina han pasatutako egunak oso politak izan ziren eta aukera izan genuen guretzat hain ezezaguna zen Bizkaiko inguru horiek pixka bat gehiago ezagutzeko, bai ibaiaren Ezkerraldea (Portugalete), baita ibaiaren Eskubialdea edota Kostaldea (Gorliz). ||

EGILEAK

Maialen eta Nahikari

Alearen egileak:



Gaurko Ikasleen Txokoa egin duten Urumea Ikastolako ikasleak.


ATSEGINDEGIREN ITXURALDAKETA



1961. urtean dagoeneko futbol zelaia zen Atsegindegi. Hori ez da ordea, ordutik hona aldatu den gauza bakarra.



1986. urtean, Atsegindegi futbol zelaia zen. Futbol partidak jokatzen ziren eta jende asko inguruetako herrietatik etortzen zen partidak jokatu eta ikustera.



1998. urtean futbol zelaia aparkaleku bihurtu zuten. Bizilagunek bertan aparkatzen zuten eta San Joanetan hantxe jartzen zituzten jaietako barrakak.



Orain plaza estalia da eta azpian aparkalekua du.